

# Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizaziora eramanean nahiean eraturako Komisioaren lehen emaitzak

SANMIGUEL, Nekane

EAEko Jueces para la Democracia-ren aldetik Komisio horretako partaide

Iaz, abenduan, euskarak Justizian duen egoeraz hausnarketa egin asmoz, Jaurlaritzako Justizia Sailak antolatutik ospatu ziren jardunaldietan hainbat proposamen eta ondorio onartu zirela zerbait jakina duzue.

Geroztik, arazo honen inguruan giroa gaiztotu eta nahastu dela ere ez da gauza berria, eta haize harrotuok baretu nahiean, batetik, eta iaz azaldutako beharrei jarraituz, bestetik, apirilean hasi ginen biltzen, Sail horren deia erantzunez: Epaileen Kontseilu Nagusiko partaide den Emilio Olabarria, Bilboko Auzitegi Nagusiko ordezkari, Justizia sailburuorde, Hizkuntza Politikarako sailburuorde, IVAP-HAEEko buru, Epaileen Elkarte, Idazkarien Elkarte, Fiskal eta Abokatuen ordezkari... Arazo bihurtu den historia honetan zeresanik genuenok, neurri batean behintzat.

Ez noa orain bilera luze, ezbaitsu eta aberats guztien berri ematera, egoeraren argazki zehatz izanik ere, lekutxo urri hau ondorioez betetzeko agindu baitidate, eta hala izanik, kontuok dira aipatzeko:

1) Karrera Judizialaren 1995-VI-7ko 1/95 Erregelamenduko 109. art.ak elebidun diren Españako Autonomietako Epaileok bi hizkuntzak jakiteari balioa eman arren, ez ziren bertan zehazten ezagutza hori nola neurtu eta zein maila zen beharrezko arauak dakarren hitz eta asmoari erantzun geniezaion. Epaileen Kontseiluaren esku egon arren erabakia, bazirudien aholku edo iritziren baten eske etorriko zela, eta, hala, ezbai luze baten ondoren, EGAK ziurtatu eta bermatzen duela ezagutza hori onartu genuen gehiengo batez, ez aho batez. Iritzia galdetu bai, baina jaramonik ez, hedabideetan agertu denez, PL2 nahikoa dela erabaki baitu Kontseilu Nagusiak. Erabaki honek argitasun eta komentario luzea merezi du, baina garbi dago orain ezinezkoa dela.


2) Justizia Sailak, IVAP-HAEEK eta Kontseiluaren arteko Konbenioaren edukia prestatu da Komisio honetan, eta aurkeztutakoaren arabera, Epaileak euskara ikasteko klase eta bitartekoak adosten ditu, benetan errazteko ikasketa horiek (diru kontuak, ordu, irakasle...), eta noski, IVAP-HAEEK antolatzen dituen azterketetan Epaileek beren tituloak lortu ahal ditzaten.

Horrez gain, Epaitegi batzuetan euskaraz lan egiteko esperientziak martxan jartzen hasiak dira (funtzionarioen ezagutzari begiraturik, ez Epaileonari).

3) Beste komisioko bateko partaideok ere ia hiru urte daramatzagu isilean lanean: Justizia Saitetik bere garaian erdera hutsean antolatutako ehundaka eredu eta dokumentu euskaratuz eta konbenio horretan lan hori ere, nolabait esateko, baliozkotzen da.

Azkenik, eta benetan aldrebesa den Justizia mundu honetan, ezin ahaztu Fiskal eta Idazkariak Madrilgo Justizia Ministeritzaren barne jarraitzen dutela, eta Ministra andreari zuzendu zaio Saila, ea antzeko zerbait egiteko prest legokeen, Funtzionario hauen euskalduntzea, orain arte, Jaurlaritzaren bizkar gainean bakar-bakarrik egon baita.

Ezin uka lerro hauek urriegi suertatu direla bilera, ondorio, adostasun eta diferentziak azaldu eta aztertzeko, baina momentuz ezin da besterik.



IHERINGen lan guztien bilduma, 1882. urtean argitaratua (ikus 104. orria, 6. zkia.)